Osakidetza

ERAKUNDE ZENTRALA

ORGANIZACIÓN CENTRAL

# EUSKARA PLANAREN EBALUAZIOA 2005-2012

# EVALUACIÓN DEL PLAN DE EUSKERA 2005-2012

Maiatza **2013** Mayo



## GAI ZERRENDA

1. Osakidetzaren Lehenengo Euskara Plana: **Testuingurua**

2. Ebaluazioaren **Ondorio orokorrak**

3. Hemendik aurrerako jarduerak

euskaraz bai sano!

# LEGE ESPARRUA

Euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuak,

Irudia ezin da bistaratu une honetan.

Ezarri zituen: **normalkuntza prozesuari hasiera emateko neurri nagusiak, helburuak eta lehentasunak**

**Euskara Planak (2005): euskararen normalkuntza prozesuari hasiera eman zioten.**
**Iraupena 6 urte; 2 ebaluazio**

## EUSKARA PLANAREN EDUKIA

Hizkuntza ofizial biak erabiltzeak hauxe dakar:

- zerbitzu asistentzialen kalitatea hobetzen du
- hizkuntza eskubideak errespatatzea

## PLANAK IZAERA PROGRESIBOA




- Lehentasuna **lehen mailako atentzioko** zerbitzuei
- **Paziente eta erabiltzaileei arreta egiteko zerbitzuak**, edozein dela erakundea eta kokapena
- Pediatriako asistentzia
- Atentzio espezializatua: **larrialdiak** eta **ospitalizazioko erizaintza**
- **30.000 biztanle baino gehiagoko** udalerriei arreta egiten dieten OZ-etako unitate asistentzialak

# EUSKARAREN ERABILERA-HELBURUAK

## Euskaldunen portzentajeak zehaztutako helburuak

**1 Lehentasuna:** 2005-2011 plangintza aldian zerbitzu elebidunak eskaini

**2 Lehentasuna:** 2005-2011 plangintza aldian zerbitzu elebidunak eskaintzen **hasi**



## Lehentasuneko unitateetako hizkuntzen erabileratik haratago:

Hizkuntza erabilerari begirako jarduerak: identitate korporatiboa, errotulazioa eta dokumentugintza, lan harremanak eta beste administrazioekiko harremanak

## EBALUAZIOAREN NORAINOKOA ETA HELBURUA





1- Irudi eta komunikazioa

2- Kanpo harremanak.

3- Barne harremanak

4- Hizkuntza kudeaketa

5- Hizkuntza eskakizunak

# METODOLOGIA



## EBALUATZAILEAK

**Landa lana** (enpresa kontratatua): **2012**

**Zuzendariekin** kontrastea: **2012 amaiera – 2013 hasiera**

Ebaluazio **txostenak**: **2012 amaiera – 2013 hasiera**

## EBALUAZIORAKO OINARRIZKO DATUAK

**Kuantitatiboak.** Aurre-diagnostikorako aurretiko txostena, dokumentu-laginak, behaketa-lanak, inkestak, telefono-deiak.

**Kualitatiboak**. Elkarrizketak eta talde fokalak

# IKUSPEGI OROKORRA

IKUSPEGI OROKORRA

| ARDATZA | BALIOA |
|---|---|
| Irudia eta komunikazioa | 66,88% |
| Kanpo Harremanak | 49,81% |
| Barne Harremanak | 39,09% |
| Hizkuntza Kudeaketa | 64,82% |
| Hizkuntza Eskakizunak | 69,02% |
| GUZTIRA | 58,48% |



# IKUSPEGI OROKORRA

IKUSPEGI OROKORRA

## Tipologiaren araberako puntuazioa




## Lurraldearen araberako puntzuazioa



## EBALUAZIOAREN LABURPENA

### ONDORIO OROKORRAK

• Euskararen normalizazioaren arloan, oro har, 2008ko ebaluaziotik **pixkanaka aurrera egin dela** antzeman da.

• **Aurrerapenik handienak hizkuntza-eskakizunen atalari** (derrigortasun-datadun lanpostuak, hizkuntza-eskakizunen egiaztapena) eta **erakunde-errotulazio finkoari** dagozkie.



• **Gutxien garatu den arloa: barne-harremanak.**

• **Ingurune soziolinguistikoak** eta **hizkuntza-eskariak** eragina dute helburuen lorpen-mailan.

## ONDORIO OROKORRAK

- Helburuen betetze-mailari dagokionez, **alde handia dago erakunde batetik bestera**: garapen-maila handiagoa lortu dute minimoetatik gorako indizeak eta irizpideak erabiliz jardun duten erakundeek.

- **Zenbait alderditan ez da aurrera egin** 2008ko ebaluaziotik: Zuzendaritzen erantzukizun-falta; Planak ez du lidergo argirik izan; paziente eta erabiltzaileen hizkuntza-aukeraren erregistroa ez da egoki kudeatu.

- Tipologiaren arabera: gehiago aurreratu da **Erakunde Sanitario Integratuetan**; gutxiago Ospitaleetan.



## EBALUAZIOAREN LABURPENA

### 1. IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

**66,88%**






## 1. IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

• **Hizkuntza-paisaia eta irudi korporatiboa**: helburuak neurri **nahiko handian** bete dira, baina erabiltzaileen **Harrerari** dagokion betetze-maila **doi-doi heltzen da %50era.**

• **Errotulazioan** eta **paper**-osagaietan, oso **zabalduta** dago euskararen erabilera (gabeziak ere badaude).

• **Web**-orrialdeak: elementu estatikoak euskaraz eta gaztelaniaz daude; hobetu beharrekoak dira informazio dinamikoaren eta erantsitako dokumentuen atalak.

• **Aldizkariak/buletinak**: ia guztietan bermatzen da euskararen presentzia, baina ez beti modu orekatu eta egokian.

• **blogak, sare sozialak**… euskarari gaztelaniari baino tratu txarragoa ematen zaio.

• **Ekitaldi publikoak**, biltzarrak eta jardunaldiak: euskararen erabilera apala.



## EBALUAZIOAREN LABURPENA

## 2. KANPO HARREMANAK

**49,81%**






# EBALUAZIOAREN LABURPENA

## 2. KANPO HARREMANAK

• Lehentasunezko arloa da, baina **eskasa** da betetze-maila, %50era ez baita heltzen.

• Ele bitan daude **harrera eta informazio zerbitzuetako** dokumentu gehienak; gabezia handiagoak **asistentzia-dokumentuetan**.

• Paziente eta erabiltzaileekiko **ahozko harremanak**: egoera **asko aldatzen** da zerbitzu-erakunde batetik bestera. Horretan, funtsezko eragina dute ingurune soziolinguistikoak eta lehentasunezko unitateetan euskararen erabilerari ematen zaion bultzada handiagoak.

• Euskara erabiltzea lotuago dago **enplegatuaren nahiarekin** jarraibide argiak izatearekin baino.

• **Aurrerapen eskasa hizkuntza-aukeraren erregistroan** eta **pertsonal elebidunaren identifikazioan.**



# EBALUAZIOAREN LABURPENA

## 3. BARNE HARREMANAK

**39,09%**






# EBALUAZIOAREN LABURPENA

## 3. BARNE HARREMANAK



- Arlo hau da gutxien garatu dena, %40tik behera.
- **Aurrerapen handiagoa giza baliabideen** atalean; eskasagoa baliabide informatikoetan eta kudeaketa-sistemetan.
- Oro har, laneko hizkuntza-paisaia gaztelaniaz dago (kartel txikiak, karpetak, artxiboak, makinak…).
- Enplegatuei zuzendutako informazioa eta komunikazioa: euskarak presentzia handia du, gabeziekin bada ere.
- **Ez da aurrera egin** enplegatuen **hizkuntza-aukeraren erregistroan.**
- **Etengabeko prestakuntza**: euskarak ia ez du presentziarik.
- **Enplegatu askok** hartu dute parte euskaraz **gaitu eta trebatzeko** ikastaroetan.

# EBALUAZIOAREN LABURPENA

## 4. HIZKUNTZA KUDEAKETA

**64,82%**






## 4. HIZKUNTZA KUDEAKETA (zuzendaritza-taldearen inplikazioa eta lidergoa)

• Arlo honek **helburuen betetze-mailarik handienetakoa** lortu du.

• Atal honetan islatzen dira argien **erakundeen arteko aldeak**: batzuek %90 gainditzen dute, eta beste batzuk, aldiz, ez dira %20ra iristen (horrek gainerako arloei eragiten die).

• Erakunde askotako zuzendaritzek ez dute garatu partekatutako lidergo argirik, eta, horri lotuta, planari behar bezalako **zeharkakotasuna falta izan zaio,** oro har, .

• Euskera batzordeek informazio-izaera izan dute; **ia ez diote ekarpenik egin Planari;** asko bildu ere ez dira egin.



# EBALUAZIOAREN LABURPENA

**69,02%**

## 5. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK, DERRIGORTASUNA ETA SALBUESPENA









## 5. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK, DERRIGORTASUNA ETA SALBUESPENA

• Ebaluatutako bost ardatzetatik, honetan lortu da **betetze-mailarik handiena.**

• Zerbitzu-erakunde batzuetan, **ez da lehentasunezko unitate guztietan betetzen** derrigortasun-datadun plazen **gutxieneko indizea**.

• 2008tik, **bikoiztu** egin da lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna **egiaztatutako enplegatuen kopurua**: Osakidetzako 4 enplegatutatik 1ek egiaztatuta dauka plazari dagokion hizkuntza-eskakizuna.

• Euskaraz jakitea derrigorrezkoa den **plazak bete eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten enplegatuen** portzentajea 2008ko %52tik 2012ko %37,8ra jaitsi da (hala ere, oraindik nahiko handia da portzentajea).

•**Ez da aldatu** beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten eta derrigortasun-datadun plaza betetzen duten **salbuetsitako pertsonen indizea.**

# HEMENDIK AURRERAKO JARDUERAK

## KRONOGRAMA

## OSAKIDETZAKO EUSKARA PLANA

| | 2013 | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maiatza | Ekaina | Uztaila | Iraila | Urria |
| 1. Ebaluazio Txosten orokorrak aurkeztu General (Euskara Plan korporatiboa) | ■ | | | | |
| 2. HPSren txostena | | ■ | | | |
| 3. Osakidetzako 2. Euskara Plana erredaktatzen hasi | | ■ | | | |
| 4. Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2. Euskara Plana onartu | | | | | ■ |